

**39.
EUSKAL
ZINE
BILERA**

Lekeitio 2016
Urriaren 16tik 22ra



39. EUSKAL ZINE BILERA



Urriak 15, larunbata,
iluntzeko 8:00etan, Ikusgarri zine aretoan.

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN 2016 EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUTZAREKIN ELKARLANA:

Europa Transit enbaxadaren baitan egindako "Mugaminak" dokumentalaren proiektzioa, eta solasaldia egileekin. Donostia 2016ren Europa Transit enbaxadak Pafosen grabatutako lana da "Mugaminak". Zipre bi eremutan banatzen duen lerro berdearen hegoaldean dago Pafos eta bertara egindako bisitan Amets Arzallus bertsolaria izan zuen bidailagun Europako Kultur Hiriburuak. Zipren erre badagoelako bat-bateko kantuaren tradizioa. Bidai horretan zipretar musikagile eta ahozko poetekin, elkartu zen Arzallus, bai halaber exodoaren biktimekin eta desagertutako pertsonen senideekin. Haren begirada eta poesia baliatuta, Zipreko oraina eta iragana ezagutzera emango ditu Xuban Intxaustik zuzendutako dokumentalak.

Urriak 16, igandea,
iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan
39. EZBren irekiera ekitaldia, Itziar Ituño eta Ainara Ortégak gidatuta. Argi filmaren proiektzioa eta solasaldia. Sarrera 5 euro.

ARGI

Egilea: Iratxe Mediavilla.
Ezaugarriak: 90'.
Herria: Elorrio.

Sinopsia: Argi, txikitatik pertsona berezia izan zen beti Elorrioko udalerrian.

Argiren bizitzaren bidai sakon batetik, ez dira soilik gaztearen eta herrikideen arteko desberdintasunak adierazten dituzten ezaugarriak ezagutuko, baizik eta, implizituki, Espainiako historiaren garairik gogorrena ere: Frankismoa.

Argiren bizitza nahiz eta benetako gertaeran oinarrituta ez egon, pertsona asko, neska honen begi bizietan isladatuta ikusiko dira, bere jaioterriko udalerritik irteteko biziki borrokatzen duena.

Historia honen kuxua, edonor Argi izan zitekeela da. Gai hau duda barik gai nazionala da lurralde nazionaletan kontatua.

Talde Teknikoa: Zuzendaritza: Iratxe Mediavilla, Ekoizpena: Aurrerene Pagalday, Argiztapena: Brais Pampin, Artea: Gorka Goñi, Soinua: Joshua Durán, Jarritziak: Ariane Nuñez, Apainketa: Ana Gorbea, Ilu apainketa: Naija Ibraín, Musika: Clán Klanke, Muntaiak: Maitane Carballo.

Urriak 17, astelehena,
iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan
EZBra aurkeztutako lanen emanaldia.

1.- EL ÁNGULO RECTO NO EXISTE.

Egilea: Jon Zufimendi.
Ezaugarriak: Gazte 22, 4' 40".
Herria: Arrigorriaga.

Sinopsia: Bi lerro zuzen espazioan, perpendikularki elkartzan direnean, 90 gradu osatzen dituzte. Baina topaketak inoiz ez dira perfektuak.

2.- IKASI ETA BIZI IZANDAKOA EZ DUZU AHAZTUKO.

Egilea: Miguel Angel Llamas Montoya.
Ezaugarriak: Profesionala, 23'.
Herria: Noain.

Sinopsia: Zugarramurdi, Arantzán eta Euskal Herriko hainbat lekutan opor ahaztezinak igaro dituzten hainbat pertsonen eskutik, AEK-ren barnetegien eskeintza ezagutzeko aukera izanen dugu. Euskaltegian ikasitakoa praktikan jarri eta ia konturatu gabe, egunerok eta 24 orduz euskaraz bizitzea da opor zoragarri hauen emaitza.

3.- DORTENTXIK.

Egilea: Amaia Ruiz de Galarreta.
Ezaugarriak: Amateurrea, 8' 39".
Herria: Tolosa.

Sinopsia: Hortentsia (Hydrangea) 70-75 espeziea dituen lantare loreduen generoa da, hegoaldeko eta ekialdeko Asian eta Amerikan jatorria duena. Arrosaren ordehako zuhaixkak dira, lore handi ederrengatik lantzen direnak. Lore ederrak ditu, zuriak, urdinak edo arròsa kolorekoak, mardotari ateratzen zaizkio, zurtoinarekin gune desberdinetatik, baina garaiera bera hartzen dute lore mardo guztiek. Normalean, apaingarri gisa erabiltzen dira soilik. Soilik, apaingarri gisa.

4.- N'DIAWALDY BOULY.

Egilea: Natxo Leuza.
Ezaugarriak: Profesionala, 24'.
Herria: Arrigorriaga.
Sinopsia: N'DIAWALDI BOULY Mauritaniako herri normal bat da, 600 pertsona bizi dira bertan. Bizitza gogorra daramate, Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen da bertako ekonomia.

5.- JOSÉ GARMENDIA IRIONDO.

Egilea: Oier Gil Zapirain.
Ezaugarriak: Amateurrea, 4'.
Herria: Urnieta.
Sinopsia:

EZBra aurkeztutako Lehiaketaz kanpo

SUKALKI EGUNA, MUNGIAKO ZAPOREA.

Egilea: Asier Abio Olazar.
Ezaugarriak: Lehiaketaz kanpo, 54'.
Herria: Bilbo.

Sinopsia: 1964. urtean Mungiako lagun talde batek "Sukalki Eguna" lehiaketa gastronomikoa sortzen du frankismoaren kontrol zorrotza sahistu eta herria jai-giroan batzeko asmoz.

Urriak 18, asteartea,
goizeko 10:00etan, Ikusgarri zine aretoan
LH 1, 2 eta 3. mailako ikasleentzat

1.- Freddy Igeldegi.

Egilea: PeterDodd
Ezaugarriak: Animazioa, 85'.
Herria: Danimarka.
Sinopsia: Ez da erraza txikientzat helduekin bizitzea, 10 urteko Victor eta bere lagunentzat adibidez. Euren mundua heldu serioz jositako dago eta gainera Freddy Igeldegi, herriko "harróputzari" aurre egin behar diote.

iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan EZBra aurkeztutako lanen emanaldia.

1.- ITZAL JOKOAK.

Egilea: Asier Mendoza Echave.
Ezaugarriak: Profesionala, 2' 25".
Herria: Zarautz.

Sinopsia: Tatanika beldur da, bere itzala atzetik baitauka, baina atzetik daukana itzala bera baino handiagoa da, eta Rockyren laguntzaz aurré egin beharko dio.

2.- TUNEL KOLORETSUA.

Egilea: Deiane Moreno Mugica.
Ezaugarriak: Amateurra, 11'.
Herria: Arrasate.

Sinopsia: Miren bere bizitzako ezkontza prestatzen ari da, baina bapatean unibertsitateko lagun bat gurutzatuko da bere bidean eta nor den deskubritzeko bultzakada, sentituko du.

3.- AITOR.

Egilea: Alex Tello.
Ezaugarriak: Amateurra, 3' 50".
Herria: Usurbil.

Sinopsia: Aspalditik dabil Aitor zurekin hitz egin eta egoteko premiarekin.

4.- KARTA ASTRALA.

Egilea: Koldo Garcia Llores eta Maite Bidarte.
Ezaugarriak: Profesionala, 30'.
Herria: Lesaka.

Sinopsia: Krisialdi bat pasatzen ari da Maite. Ezer ez da uste zuen bezala. Ez da gai bere egoera azaltzeko eta ez ulertuá sentitzen da. Jakín badaki, soilik, pertsona batek lagunduko duela krisia gáinditzen. Horregatik, ez du amore emanen persona, hori aurkitu arte.

5.- HASIERA.

Egilea: Felipe Ugarte Aranburu.
Ezaugarriak: Amateurra, 13'.
Herria: Urnieta.

Sinopsia: Maria bere segurtasun eta bizipoza bat-batean galtzen ditu bere bikotearen erasoá jasan eta gero. Barruan itsatsirik daraman traumari aurre egiten saiatuko da, baina ez da erraza izango.

6.- BASERRIKO AHOTSAK.

Egilea: Onintza Etxebeite Liras.
Ezaugarriak: Amateurra, 17'.
Herria: Oiartzun.

Sinopsia: Baserriko ahotsak, baserriaren proimenaren bila doan proiektua da. Mikelentxone (Oiartzun) baserriko bizimoduaren parte izan ziren zazpi anai-arreben ahotsak jasotzen dira bertan, memoria indibidualetik kolektiboa den bat sortuz. Zazpi ahots hauek dira, hain zuzen, baserriaren izaera bueltatuko digutenak, lekukotasunaren baitan orainaldiaren parte den iragan bat berberaizki, baserriaren identitatearen eta bere kultur transmisioaren inguruko hausnarketan.

7.- OMA SEKRETUZ BETERIKO BASOA.

Egilea: Ane Cerrato.
Ezaugarriak: Gazte 22, 15'.
Herria: Bilbo.

Sinopsia: Historia beti garaileek idatzi dute. Nahikoá al da gezur bat euskal historia guztia kolokan jartzeko? Zer gertatzen da aberriaren sustraiak kolokan jartzen badira?
"OMA" dokumentalean Euskal historiagile, aditu eta artistak, OMAko basoaren jatorriaren inguruan argi eta garbi hitz egitea érabaki dute, egia osoa kohtatuz. Basoaren sekretuek Euskal Herriko historioan bidai bat egiteko aukera eman dute. Bide batez, penintsulak 8 mendeetan zehár jasandako konkistak Euskal Herrian izandako ondorio errealak azalarazi ditu OMAk.

8.- BITARTEKARITZA ISTORIO BAT.

Egilea: Jon Urraza Intxausti.
Ezaugarriak: Profesionala, 7' 24".
Herria: Getxo.

Sinopsia: Gontzalen broma astunekin nekatuta, Karmelek whatsapp taldea sortuko du. Gontzal, amorratuta, Karmeleren bila abiatuko da orduan, baina liskar érdian, gatazkak konpontzeko metodo berriak landu nahi dituen irakasle bat sartuko da.

Urriak 19, asteazkena, iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan EZBra aurkeztutako lanen emanaldia.

1.- ARRASATEKO ZUHAITZAK.

Egilea: Dragoi Produkzioak, koop. E. Txikia.
Ezaugarriak: Profesionala, 4' 02".
Herria: Arrasate.

Sinopsia: Arraste herriari zuhaitzek duten garrantzia kohtatzen du film honek. Herria ikusteko beste modu bat aurkezten du.

2.- HARTZ TXIKI.

Egilea: Uraitz Soubies Chico.
Ezaugarriak: Amateurra, 16'.
Herria: Gasteiz.

Sinopsia: Eneko 5 urteko seme txikia gauero joaten da gurasoen ohera eta ez die ondo lo egiten uzten. Gurasoek hartz txiki bat oparitzen dioten, berarekin lo egin dezan.

3.- BUR.

Egilea: Dier Fuentes.
Ezaugarriak: Amateurra, 5' 22".
Herria: Bera.

Sinopsia: Buruko uretan barrera bidaiá, iluntasun eta argitasunen tira-birak, guré guen burmuinen akuiferoen hausnarketa.

Laburmetraia honetako protagonista aspaldi itxifako taberna batean esnatzen dá, eta alderantzizko bidaiá bat hasten du, bere barrenetatik, tunel ilunean argia aurkitu eta aurrera oinez bidea egiten hasten den arte.

4.- ZUREA.

Egilea: Jon Garate Labaka.
Ezaugarriak: Gazte 22, 14' 20".
Herria: Orio.

Sinopsia: Kristinak bere bizitza berregín du. Dueta hiru urte hil zen Aimár, bere mutil-laguna. Kostatu bazaio ere, Aurrera egitea lortu du. Beste mutil bat ezagutzen ari da eta Aimarren galera gáinditu duela dirudi. Hala ere, bere urtebetetze éguanean, espero ez duen sorpresa bat jasoko du...

5.- AGIRRETARRAK.

Egilea: Itziar Alonso Arbiol.
Ezaugarriak: Amateurra, 9'.
Herria: Donostia.

Sinopsia: Bi anai elkartzen dira hil berri zaien aitaren etxea.

6.- EKOETIKO TELESAILA: LEHEN ATALA.

Egilea: Alex Tello.
Ezaugarriak: Amateurra, 25' 51".
Herria: Usurbil.

Sinopsia: Biki (Anabel Arraiza) eta Victor (Javier Rodil) pisu-kideak dira eta atal honetan beren egunerokoaren jardunaldi bat ezagutuko dugu, goizetik gauera "Ekoetikopatetikobikoa" poltsiko antzerkiaren moldaketa ikusentzunezkoetara.

7.- XINTA DANTZA.

Egilea: Jorge Gil Munarriz.
Ezaugarriak: Profesionala, 4'.
Herria: Legazpi.

Sinopsia: Bizitzak bira asko ematen ditu. Heriotzak... ere bai.

8.- JORRAL

Egilea: Eneko Zuberogoitia Alonso.

Ezaugarriak: Gazte 22, 2' 58".

Herria: Lekeitio.

Sinopsia: Hustu, bete eta hustu. Otzara eta erakustazoka, garaian garaikoa.

EZBra aurkeztutako Lehiaketaz kanpo

AITXITXE

Egilea: Markel Goikoetxea.

Ezaugarriak: Lehiaketaz kanpo, 14' 51".

Herria: Estatu Batuak.

Sinopsia: Luis, aspaldi Amerikara bizitzén joandako 75 urteko gizon euskaldun bat, bere eguneroko bizitzaz nekatuta dago: egunkaria irakurri, irratia entzun, pelikula klasikoak ikusi, etab.; eta guzti hori, norekin konpartitu ez duelarik. Bizitzaren aurrean etsi egiten du eta bere bihotzeko medikamentuak ez hartzea erabakitzen du. Baina bapatéan, RING!!! Etxeko tirrina. George, bere iloba, zaindu behar du: biziazunez eta curiosidadez beteriko 6 urteko haurra. Luisen mundua hankaz gora jarriko duen ume honek; bizitzeko ilusioa itzuliko ahal dio? Akaso beranduegi izango da?

Urriak 20, osteguna

goizeko 10:00etan, Ikusgarri zine aretoan

LH 4, 5 eta 6. mailako ikasleentzat

1.- OKER

Egilea: Stuart McDonald

Ezaugarriak: Abentura, 95'

Herria: Australia.

Sinopsia: Etengabeko azeri-erasoek ixteko arriskuan jarri dute Australia hegialdeko herririk bateko erakarpen turistiko nagusia, Pinguino Txikien uharte bat.

EZBra aurkeztutako lanen emanaldia.

Iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan

1.- LEIHOAK

Egilea: Irati Cano Alkain.

Ezaugarriak: Amateurra, 11'.

Herria:

Sinopsia: "Maiz, leihotik haratago begiratzen dut, haien bizimodua zein izango den imajinatuz. Eta pentsatzen dudan guzti hori egia den jakin nahiko nuke"

2.- KORRONTEARI AURRE. EUSKAL BALEAZALEAK ISLANDIAN.

Egilea: Joxean Coya Ayudán.

Ezaugarriak: Amateurra, 30'.

Herria: Donostia.

Sinopsia: Euskal baleazaleak islandian. Zer dela eta Jon Gudmundssonek, garaiko lekuko horrek, korronteari aurre eginez kontatu zuen "Benetako istorioa"?

3.- ARRASATE 360º LURRAREN ETA ZERUAREN ARTEAN.

Egilea: Dragoi Produkzioak, koop. E. Txikia.

Ezaugarriak: Profesionala, 2' 33".

Herria: Arrasate.

Sinopsia: Arrasate herriaren ikuspegia da lanaren muina. Herriaren nortasuna adierazten duten elementuak jasotzen ditu modu arinean. Herria ezagutarazteko ikus-entzunezko dokumentua da.

4.- EUPHORIA.

Egilea: Sergei Sobera.

Ezaugarriak: Amateurra, 14'.

Herria: Leioa.

Sinopsia: Norbait hil ondoren, jendeak euforiaren sentsazioa esperimintatzen du.

5.- HAMABIETAN DUELUA.

Egilea: Unai Guerra.

Ezaugarriak: Profesionala, 6'.

Herria: Donostia.

Sinopsia: Bi legez kanpoko maltzurrek beldurra zabaltzen dute Amerikako Far Westeko herri txiki

batean sheriffa aurre egiteko ateratzen den arte.

Egüerdia da eta elizako kanpaiak jotzen hasten dira.

Hamabigarren kanpaikadaren ondoren, pistolak zorrotik aterako dira eta ezer ez da izango ematen duena...

6.- IRTEERA BAKARRA.

Egilea: Unai Hernández Unda.

Ezaugarriak: Profesionala, 4'.

Herria: Bilbo.

Sinopsia: XATIRO raperoaren Xatirokeriak izeneko diskako "Irteera bakarra" abestiaren bideoklipa dugu hau. Kitarraz jositako errapa, letra eta musika ilunarekin bat egiten dituzten irudi zuzen eta bortitzak begien aurrean jartzen dizkigu Unai Unda zuzendariak.

7.- LA CREU (GURTZEA).

Egilea: Dani Seguí.

Ezaugarriak: Amateurra, 16'.

Herria: Bartzelona.

Sinopsia: Adineko bikote batek eguneroko borrokatzen du bere seme bakarraren heriotza onartzeko. Dolua kudeatzen erakusten duen istorioa da. Burua lanpetuta mantentzea gafrantzitsua da bizirauteko eta gure gurutzera onartzeko.

Gure protagonista goizeko 6:00etan esnatzen da bere semea hil zen lekura loreak eramateko. Erritu hau astero errepikatzen da, bere senarrak besaulkian jesarrita apurka-apurka suntsitzen joatea erabakitzen duen bitartean. Egun batean senarrak altxatzea erabakitzen du bere biziaz zentzua eman eta bere erritu propioa hasteko.

8.- BETI BEZPERAKO KOPLAK.

Egilea: Begoña Vicario.

Ezaugarriak: Profesionala, 5' 22".

Herria: Lezama.

Sinopsia: Euskal Herrian ondo sustraitutako tradizio bat erabiliz (Santa Agedaren bezperako ospakizuna, zeinean jendea eta bertsolariak etxex-etxe joaten diren festa giroan, bertsoak kantatzen makilek ezarritako erritmoan),

Maialen Lujanbio bertsolariak genero idarkeriaren salaketa gordina egiten du bere bertsoen bidez. Bertsoz bertso, indarkeria matxistaren agerpen ezberdinak salatzen dira, bai eta hura gaintzeko gure ezintasuna ere. Bertsoak aitzaki hartuta, hogei euskal artista gaztek, sortze-lan kolektibo bat zuzentzen dute hainbat animazio teknika desberdin erabiliz.

9.- MARI.

Egilea: Yolanda Mazkieran Zelaia.

Ezaugarriak: Amateurra, 10'.

Herria: Altsasu.

Sinopsia: Altsasuko artistek egindako auzolana, Hendaiako Akelarre Elkartearen laguntzarekin. Mari bizitzaren indarra eta adurra da. Mari euskaldunen kosmologiaren kontzeptu nagusia da.

10.- LOS DESPEDIADOS.

Egilea: Ibon Goikoetxea Ayastui.

Ezaugarriak: Amateurra, 9'.

Herria: Donostia.

Sinopsia: Sistemak zahpaturiko bi gizonen hura deuseztatzearekin egin zuten amets.

11.- 280º.

Egilea: Eneko Zuberogoitia Alonso.

Ezaugarriak: Gazte 22, 2' 47".

Herria: Lekeitio.

Sinopsia: Gaztea da, baina argi du etorkizunean zer egin nahi duen. Sukaldean aritu nahi du; eta ikasi nahi luke, era profesionalean aritzeko. Irratiak emango dio soluzioa.

Urriak 21, ostirala
iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan

**EUSKAL ZINEMAREN BEGIRADA 2016, KONTXU
ODRIOZOLA ANDREARI**



Begirada bat euskal ikusentzunezkoetako emakume aintzindariei, eta Kontxu Odriozolari omenaldi. "Urte berri on, amona" filmearen proiektzioa eta solasaldia Telmo Esnal zuzendariarekin.

Urte berri on, amona!

Egilea: Telmo Esnal.

Ezaugarriak: 104' Komedia.

Herria: Euskal Herria.

Sinopsia: Amona Mari oso posesiboa da. Maritxu bere alaba bereganatzen du. Joxemari bere suhiak zahar-egoitza batean sartzea erabaki du. Horretarako Kintxu bere suhiaren laguntza izango du, baina Maritxu ezin da konturatu. Zahartzairearen gaia jorratzen du ikuspuntu komiko bategik.

Urriak 22, larunbata
goizeko 11:00ean Barandiaran aretoan mahai
inguru.

"Emakumeak euskal ikus-entzunezkoetan: Hezkuntzatik lan mundura."
(H)emen-Her(e) plataformak antolatuta eta dinamizatuta eta Kristina Zoritik (plataformako presidente-ordeak), moderatuta.
Europako ikus-entzunezko eskoletako ikasleen erdiak emakumezkoak badira ere, hori ez da islatzen lan munduan. Ikasle phi bat, irakasle bat eta ikus-entzunezko sektorean lanean ari diren hainbat emakume jardungo dira gai honen inguruan.
(H)emen-(H)ere, euskal ikusentzunezkoetako emakumeen ikusgarritasuna bultzatzeko plataforma da. Aurten elkarlanean aritu da Euskal Zinema Bilerarekin.

Urriak 22, larunbata
Iluntzeko 7:30ean, Ikusgarri zine aretoan
39. EZBren itxiera ekitaldiaren jaia.

Aurtengo edizioaren itxiera eta sari banaketa
Itziar Ituñoek gidatuta.
Sarrera 5 euro

39.
EUSKAL
ZINE
BILERA

Aurtengo epaimahaia



Sara Cózar Valbuena, Euskal aktorea. "Goenkale" telesailan lanean ibili ondoren, "Emaztegiaren semea", "Hil arte bizi", "Maitasunaren ostean maitasuna" edo "Las mujeres de verdad tienen curvas" antzezlanetan jardun izan du, Zineman, "Bypass" eta "Izarren argia" filmetan lan egin du aktore moduan.



Tessa Andonegi Santamaria, Euskal aktorea. Zinean, antzerkian eta telebistan egin du lan. Hala nola, "Goazen" (2008) filmean eta "Goenkale" eta "Jaun ta Jabe" telesailetan parte hartzearen da ezaguna. Antzerki munduan ere aktore ("Las dos verdades" - Tartean 2005-2006) eta zuzendaritza laguntzaile ("Ai Ama!" - Hika Teatroa 2003) lanetan ibili da.



Asier Bilbao Izacelaya Produktore eragilea eta produktore zuzendaria. Bere ibilbide profesionala batez ere produkzio lanetan garatu da, antolaketa nahiz edukietan. "Objetivo Agirre" (2016) zine luzemetrairean garapenean parte hartu du, baita "Amarén Eskuak" (2013) luzemetraian ere.



Asier Hormaza Elorduy, Euskal aktore eta ekoiztorea. Zinean, antzerkian eta bereziki telebistan egin du lan. "Argi" edota "El cazador de dragones" filmetan parte hartu du Iratxe Mediavilla eta Patxi Barcoren zuzendaritzapean. Gainera, "Goenkale" eta "Vaya Semanita" telesailen protagonista izatearren ezaguna ere bada.



Iñaki Billelabeitia, sormen artistikoa, Euskal Herriko Unibertsitatean, Arte Ederren Fakultateko irakasle titular doktore eta ikertzaile lanarekin uztartzen du. Klaseak ematen ditu Arteko Graduan, Increate masteurrean (Investigación y Creación en Arte) edo ta Arte Garaikidea. Teknologiko eta Performatiboko masteurrean ere. Gaur egun UPV-EHU-ko Arte eta Teknologia Departamentuko zuzendaria da.

39. EUSKAL ZINE BILERA

Lekeitio 2016
Urriaren 16tik 22ra



lekeitioko
udala



Bizkaia
foru aldundia

dirautzaren foroa



EUSKAL ZINE
BILERA

